



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, **2016/08/26KOA**

Oraindik ere ez da prezipitaziorik, eta tenperatura handiak ari dira izaten, uda betekoak gehiago abuztu amaierakoak baino, eta, egunokin, beroaz gain, haize beroa ere badabil, eta horrek areagotu egiten du ebapotranspirazioa. Uztailean eta abuztuan gauetan fresko izan bada ere, azken aste honetan beroagoak izan dira gauak.

Mahastiaren osasun egoera bikaina da, nahiz eta, bi hilabetez prezipitaziorik izan gabe, geroz eta mahasti gehiagotan hasi diren agertzen ondorio txarrak eta estres egoera nabarmenak edo ez hain nabarmenak.

Ez zaio ureztatzeari utzi ura baliatzeko moduan izan denean, baldin, garai hauetarako arauak agintzen duten moduan, Kontseilu Arautzaileari baimena eskatu bazaio.

Mahats beltzaren barietateen egoera fenologikoa heldutasun betea da (M2), kanpoko mahats zuriaren barietateak heldu dira (N), eta bertako mahats zuria bi egoera horien artean dago. Hala ere, bada alderik mahastien artean, nolako karga dakarren bakoitzak eta zer gaitasun duen urik ezari egokitzeko, eta, hala, produkzioz handiena dakarten eta estresa jasaten ari diren lurzatiak dira motelago ari direnak heltzen.

Produkzioa ugaria izango zela iragarri zen arren, ez da hain ugaria izango, zeren aleak, euririk ez-eta, txiki geratzen ari baitira. Dagoeneko, non eta ez den egoera erabat aldatzen, ezingo dira sobera hazi. Ale txikiak, hala ere, nahiz eta errendimendu urriagoa izan, osasun eta kalitate hobek ekarri ohi ditu, betiere normaltasunez hazten bada.

Mahastiaren osasun egoera ona da. Gaitzez den bezainbatean, zurina erruz izan da aurten, egoerak ere lagundu egin baitu gara dadin; mildiua kontrolatuta dago, gorrina kontrolatuta dago, eta botritisak, egoera ez baitu faboragarria izan, ez du kalterik eragin, nahiz eta ohiko prebentzio tratamenduak egin behar izan. Izurritei dagokienez, agertu dira nonbait sitsak, armiarma horiak eta eltxo berdeak, baina ohiko tratamenduekin kontrolatu dira.

Hemendik aurrera, edozein tratamendu erabilita ere, kontuan hartu behar da segurtasun epea, 21 eta 28 egun artekoa. Hala, bada, hauek dira azken egunak bertako zuriaren barietateak eta beltzaren barietateak tratatzeko. Kanpoko zuriari dagokionez, tratamenduak bertan behera utzita egon beharko lukete produktu gehienetan.

Ebapotranspirazio handiaren eta prezipitaziorik ezaren ondorioz mahastiak jasaten ari diren estresa batez ere mahasti gazteei ari zaie erasaten, zama handia baitute, edo baita ere aireztatzea hobetzarren hosto soilketa handia eragin zaien mahastiei. Lehortek gehien erasan dien mahastietan hasi dira mahatsondoak oinaldeko hostoak galtzen. Ur defizitak, oro har, errendimendua urritzea ekarriko du, eta mahatsa motelago heltzea.

Mahasti zaharrak, ureztatu ahal izan direnak, lurzati freskoenak eta barrenenak, eta, oro har, mahasti orekatuak hobeto helduko dira. Alde horretatik, nabarmentzekoa da zein alde handia dakarten egoera begetatiboan eta produkzioan mahasti zaharrek eta gazteek: zaharretan, sustraiak barrenago baitituzte, eta lur bolumen handiagoa ikertzen baitute, gutxiago erasaten du lehortek. Horregatik, homogeneitate handiagoz helduko dira, eta errendimendu eta kalitate ezin hobea ekarriko dituzte. Upategi handiek ondo dakite hori, zeren, geroz eta maizago, mahasti zaharretako mahatsaren bila abiatzen baitira eta hobeto ordaintzen baitute.

Behin eta berriro gogorarazi nahi dugu estres sintomak ageri dituzten lurzatiak ureztatzeko. Ezin bada, produkzioa urritu beharra dago, mahatsondoak zer zama jasan dezakeen, halaxe mehaztuz.

Datuak horiekin, egoera nabarmenki aldatu ezean, litekeena da kanpoko barietateen uzta irailaren hasierako egunetan hastea. Arabako Errioxan han eta hemen alde orotan mahatsa biltzen hasteko, ordea, itxaron egin beharko da ohiko sasoi iritsi arte, irailaren amaiera edo urriaren hasiera.

Laburbilduz: mahastiaren egoera, oro har, ona da, urik eza gehien jasaten ari diren lurzatietan izan ezik, eta osasun egoera bikaina dakar, errendimendua ona kantitatearen aldetik, eta, beraz, bada aukera uzta kalitatezkoa izan dadin. Nolanahi ere, itxaron egi behar da eta ikusi iraila nola doan, batez ere bigarren astetik aurrera eta urriaren hasierako egunetan, orduan komeni izango baita egunaren eta gauaren arteko alde termikoa handia izan dadin heldutasun fenolikoa ondo irits dadin. Euriek, behin eta berrizkoak ez badira, kalte baino gehiago lagundu egingo diote heltzen mahastiari, jasaten ari den ur defizita dela-eta.

Irailetik aurrera hasiko da heldutasunaren azterlana, eta, beraz, mahastiaren egoeraren gainerakoez eta heldutasunaren eboluzioaz esan beharrekoak, dagozkion buletinetan emango ditugu.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia